

75 Urte
J a k i n t z a
s u s t a t u z
E t o r k i z u n a
e r a i k i t z e n



**Mondragon
Unibertsitatea**

Goi Eskola Politeknikoa
Escuela Politécnica Superior

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

00	AURKEZPENA	4. orr.
01	NOR GARA?	10. orr.
02	HISTORIA	18. orr.
03	MGEP ZENBAKITAN	26. orr.
04	NORA GOAZEN	32. orr.

00

AURKEZPENA

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko (MGE) langileok izan garenaren eta garen horren oinarriak islatu nahi izan ditugu memoria honetan: 75 urteko historia duen hezkuntza proiektua, gizarte hobe eta justuago bat sortzeko ekarpena eginez bere hezkuntza, ikerketa eta transferentzia jardueren bidez.



“

*Hezkuntza helduleku natural
eta ezinbestekoa da ordena
sozial, humano eta justu berri
bat sustatzeko.*

”

Jose Maria Arizmendiarieta

ZER DA MGEP?


MGEpen (Mondragon Goi Eskola Politeknikoa) misioa da gizartea eraldatzea prestakuntzaren, ezagutzaren sorkuntzaren eta horren transferentziaren bidez, eremu zientifiko eta teknologikoan.

Pertsona da gure proiektuaren oinarria eta helburua. Kooperatibaren kudeaketan maila berean parte hartzen dute langileek, ikasleek eta enpresek. Horrek erraztu egiten du ikasleen, enpresen eta, oro har, gizartearen interesekin eta beharrekin lerrokatzea MGEP.

Gure hezkuntza eredu integralaren helburua da teknologo eta ingeniari bikainak prestatzea GMHZ* titulazioetan, Graduetan, Masterretan eta Doktoretzetan, ingurune global ba-

tean lankidetzan aritzeko prestatuak, eta diziplina anitzeko taldeen gidaritza gauzatzeko gaituak. Ikerketa jardueren bidez ezagutza sortzea eta gizarteari transferitzea dira gure misioaren ardatz nagusiak (enpresekin egindako proiektuak eginez eta etengabeko prestakuntza emanez).

Dokumentu honen bidez, eta gure 75. urteurrena baliatuz, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jaso nahi dugu.



01

NOR GARA?

Pertsonak, lankidetza, prestakuntza, industria eta ikerketa eta transferentzia gara



Berrikuntza etengabe dagoen Ingeniaritza Eskola gara. Hasiera batetik hauek izan dira gure ekintzen ardatzak: prestakuntza, industria, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia enpresei, ekintzailera eta, nola ez, lankidetzara.

Nola irudikatzen dira kontzeptuok gaur egun?

PERTSONAK GARA

Justizia soziala eta pertsonengatiko ardura izan ziren On Jose Maria Arizmendiarrizaren ekintzak bultzatu zituzten balioak, eta hori da ARRASATEKO eta MGEPeke esperientzia kooperatiboaren sustraia. Baita bere izaera praktikoa ere, horrek bere teoria guztiak gauzatzera bultzatu baitzuen, pertsonak errealitatearen ikusle huts izateko sortuak ez zirela konbentzituta, hura eraldatzen inplikatu behar zutela.

MGEPen mantendu egiten da espiritu hori, langileek eta ikasleek etorkizun hobe bat eraikitzeko dugun bokazioa kanalizatzeko proiektu sozioenpresariala baita, geure buruak garatzeko aukera ematen diguna, pertsona eta profesional gisa haziz.



LANKIDETZA GARA



Jasotako euro publiko bakoitzeko, **7,6 €** bueltan doaz gizartera*

Egresatuen langabezia tasa **5,8 %**** Ikasketei lotutako enplegua **97 %*****

Eskualdearekiko konpromisoan **Bikaintasuna ******



Lankidetzaren DNA daramagu. Gure jatorria da, gure helburua da. Mondragon Goi Eskola Politeknikoa unibertsitate kooperatiboa da, irabazi asmorik gabeko eta erabilera publikokoa, eta, beraz, gizarte osoari irekia. Mondragon Korporazioan eta Mondragon Unibertsitatean integratutako kooperatiba bat, zeinekin balioak eta printzipioak partekatzen ditugun. MGEP osatzen dugun pertsonen lankidetzaren, altruismoa eta proiektuan buru-belarri jardutea da gizarte justuago eta jasangarriago baten garapenean agente aktiboak izatea ahalbidetu

diguna, eta etorkizunean ere hala izaten jarraitzea ahalbidetu behar diguna.

* LKS garatutako ikerketa GeAccount metodologia estandarra erabiliz

** 2016ko Lanbideren laneko integrazioko inkestako datuak (Euskal Unibertsitate Sistemaren batez bestekoa: %17,6)

*** 2016ko Lanbideren laneko integrazioko inkestako datuak

**** Iturria: U-Multirank 2017. Parte hartu duten unibertsitate kopurua: 1.500

PRESTAKUNTZA GARA



EGHEra egokitzen estatuko **lehenengo** ingeniari-tza *



Pertsonak lankidetzaren lan egiteko prestatzen ditugu. Enpresen eta gizartearen garapenean ekarpen aktiboa egiteko gai diren eta balioak, kompetentziak eta ezagutzak dituzten pertsonak hezte eta prestatzea izan da eta da gure zeregin nagusia. Gero eta globalagoa den marko batean enpresaren mundurako praktikoa eta hurbila den prestakuntza eskaintzea da gure ezaugarri nagusia. Metodologia aktiboetan oinarritutako gure hezkuntza ereduari esker, lankidetzaren lan egiteko teknikariak eta ingeniariak prestatzen ditugu,

enpresen autonomiaz jarduteko gai direnak, diziplina anitzeko inguruneetan, aldaketei eta ziurgabetasunari ausardiarekin aurre egiteko gai. Gure konpromisoa gerora ere mantentzen da, eta enpresei aktiboki laguntzen diegu beraien langileen etengabeko prestakuntzan.

* EGHE: Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrua (Graduko eta Masterreko tituluak)

** PBL: Arazo errealak konpontzean oinarritzen den ikasketa metodologia aktiboa da, seihileko bakoitzean jasotako gaitasunak aplikatzea eskatzen duten proiektuen garapenean bidez.

INDUSTRIA GARA



Teknologi transferentzia **lehenengoa** *

Bikaintasuna Spin-offetan eta profesionalentzako prestakuntzan *



EZAGUTZA TEKNOLOGIKOA SORTZEA
Prestatzeko eta gure ezagutza etengabe eguneratzeko.



ENPRESEI EZAGUTZA TRANSFERITZEA
Beraien posizio lehiakorra hobetzen laguntzeko.



EKINTZAILETZA
Gure gizartea garatzen laguntzeko.

MGEpen egiten dugun lan guztiak eremu teknologikoarekin zerikusia du, nagusiki industria arloarekin. Gure erronka da etengabe gure ezagutza, prestakuntza eskaintza eta egiturak egokitzea, teknologiaren laguntzaz gure ikasleak eta profesionalak prestatzeko, enpresaren eskaerei eta gizartearen erronkei heldu ahal izateko.

Enpresen maila teknologikoa eta lehiakortasuna handitzen laguntzeko dugun konpromisoa indartze aldera, baliabideak jartzen ditugu geure burua gaitzeko, puntako azpiegituraz hornitzeko eta industriaren intereseko arloetan ikertzeko.

* Estatu mailan. Iturria: U-Multirank 2017

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA GARA



Bikaintasuna industriarentzako argitalpen eta patenteetan *



MGEpeko ikerketa teknologikoa ikerketa taldeetan egituratuta dago, eta etengabe eboluzionatzen eta euren burua berresmatzen dute, gure enpresa ingurunera egokitzeko. Etorkizunean izan ditzaketen beharrak identifikatuz, gure ikerketa bideratzen dugu geure burua gaitzeko eta ezagutza sortzeko, irakasleekin, doktoregaiekin, eta ikasleekin diziplina anitzeko taldeak eratzeko, eta beraien arazoak konpontzen laguntzeko, jauzi teknologikoak emateko, eta enpresaren lehiakortasuna eta bere posizio globala hobetzeko. Azken batean, nazioar-

teko estandarren arabera bikaintasunezko ikerketak egin eta horiek etengabe industriara aplikatzeko ahalegina orekatzen jakiteagatik gara ezagunak.

* Iturria: U-Multirank 2017. Parte hartu duten unibertsitate kopurua: 1.500

02

HISTORIA

MGEpeko ***mugarri*** garrantzitsuenen errepassoa

Guretzat, gure helburuak argi izanik etorkizunera begiratzea bezain garrantzitsua da iraganera begiratu eta gure hastapenak eta eboluzioa gogoratzea.

Zer momentu nabarmendu ditzakegu historiako 75 urte hauetatik?



J.M. ARIZMENDIARIETA

NOR DA JOSE MARIA ARIZMENDIARIETA?

"1915eko apirilaren 22an Markina-Xemeingo Barinaga auzoko Iturbe baserrian jaio zen. Hamabi urte zituela oinordekotza utzi eta Gasteizko seminarioan sartu zen. Filosofia eta Teologia ikasi zuen. 1937an kartzelatik pasa zen aldizkari abertzaleekin elkarlanean aritzeagatik. 1940an apaiztu zen eta 1941ean Arrasatera iritsi zen San Joan elizako laguntzaile modura. 1943an Eskola Profesionala martxan jarri zuen. Hurrengo urteetan hainbat eta hainbat kultura eta kirol jarduera bultzatu zituen, eta bere ikasle batzuk beraien prestakuntzarekin jarrai zezaten sustatu zuen, 1952an Zaragozan peritu industrialen lehen promozioan diplomatu zen arte. Horietako batzuk 1956an Ulgor eratu zuten, lehenengo kooperatiba industrialia. 1957an TACI eratu zen, gaur egun Fagor Arrasate dena. 1959an Lankide Aurrezki Kutxa sortu zuen, eta hortik aurrera esperientzia kooperatibista ugari abiatu dira: beste askoren artean, 1962an Copreci, Ederlan eta Lana, 1956an Fagor Elektronika, 1966an Alecop, 1967an LagunAro, eta 1974an Ikerlan.

1976an Arrasatek agur esan zion On Jose Mariari, eta hark azken mezu hau utzi zuen: Atzera begiratzea Jaungoikoari laido egitea da, beti aurrera begiratu behar da.*"

* Arizmendiarieta 100 (2015). *Historia*. Arizmendiarieta 100. Hemendik berreskuratua <http://www.arizmendiarieta100.com/eu/Zhistoria/>



"Irakaskuntza iraunkorra izango da, edo ez da eraginkorra izango"

"Mundua ez zaigu emana izan begira diezaiozun, eralda dezagun baizik"

"Hobe hanka sartzea, ezer ez egitea baino. Gainera, hanka sartuz asmatzen ikasten da"



"Norberaren zoria besteenarekin lotua dago"

"Beti dago pauso bat gehiago egiteko"

BERE GOGOETA BATZUK

"Bizitasunaren adierazgarria ez da irautea, birsortzea eta egokitzea baizik"



"Kooperatibista, langilea ez ezik enpresaburua ere bada"




"Jakituria sozializatu behar da boterea demokratizatzeko"



"Ideia onak egia bilakatzen direnak dira"

"Ez dago erein gabeko uztarik, eta ezer ez da eratzen berezko sorreratik"

HISTORIA PIXKA BAT





1985

Iraunkorren sorrera

Iraunkor enpresetako profesionalentzako prestakuntza iraunkor-rako zentro gisa sortu zen, jarduera hori Eskola Profesionalaren hasiera hasieratik gauzatu bazen ere.



1997

Eusko Jaurlaritzaren aitortza

Eusko Jaurlaritzak teknologiaren euskal sarean integratutako eragile gisa aitortu zuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoa.



2007

Garaia Berrikuntza Gunea

Garaia Berrikuntza Gunea ireki zen, Debagoieneko elkargune, elkarrekin eta integratuzko espazio-ekosistema.



2010

Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikoko zentroa

Sistema txertatuen Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroaren inaugurazioa, Garaia Berrikuntza Gunean.

Mondragon Unibertsitatearen sorrera

Martxoan MU sortu zen Debagoieneko beste bi unibertsitate zentrorekin batera: ETEO S. Coop. eta Irakasle Eskola S.Coop., gaur egun Enpresagintza eta HUHEZI, hurrenez hurren.

1997



MENDEBERRI hezkuntza eredua

MGEPen MENDEBERRI hezkuntza eredu berria ezarri zen.

2000



Europako Esparru berrirako egokitzapena

Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparru berrira ingeniari-tza ikasketak egokitu dituen lehenengo unibertsitate zentroa.

2008



Orona Ideo campuseko inaugurazioa

Orona Ideo campusaren inaugurazioa, zeinarekin 2002az geroztik lankidetzazko ikerketa akordioa dugun.

2013



2018

MGEPen 75. urteurrena

03

MGEP ZENBAKITAN

Ibilbidea eta gaur egungo egoera

MGEpen ekarpena zifra batzuetara mugatzeko asmorik ez badugu ere, bere ibilbidean eta gaurkotasunean esanguratsuak diren batzuk aurkeztu nahi ditugu.

75 URTE ZIFRATAN

Eskola Profesionalean, ikasturteko, 20 bat ikasle prestatzen ziren lehenengo urte haietatik, MGEPek etengabe eboluzionatu du gizartearen aldaketetara eta beharretara egokitzeko. 75 urte hauetan zehar 36.000 teknikari, ingeniari eta teknologo baino gehiago prestatu dira, eta enpresetako eta oro har gizarteko inpaktua begi-bistakoa da. Gaur egun, 2.000 gazte baino gehiago ari dira prestatzen MGEPen ikasketa teknikoetan eta ingeniartzatan, baita 2.500 profesional inguru ere.

Ondoren datozen orrialdeetan MGEPeko ibilbidearen hainbat dimentsio nabarmen islatu nahi dira, baita gaurkotasunekoak ere, 2016/2017 azken ikasturteko datuekin.



● % 46 ikerketan

● % 54 transferentzian

UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA

1943
2017

10.700
egresatu unibertsitate
ikasketa ofizialetan

191 *doktore*
(MU 1997. urtean sortu zanetik)

LANBIDE HEZIKETA ETA PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

1943
2017

23.560
egresatu
lanbide heziketan

1.800 profesional
titulu propioetan prestatuta
(masterrak, aditu ikastaroak eta baliokideak)


IKASKETAK

IKASLE KOPURUA



Ingeniaritzako Gradua	1.363 ●	GMHZ* 321 ●
Ingeniaritzako Masterra	268 ●	
Ingeniaritzako Doktoretza	105 ●	

METODOLOGIA



% 47
Gradua

% 46
Masterra

METODOLOGIA AKTIBO EKIN EMAN-
DAKO ECTS-EN PORTZENTAJEA

PRESTAKUNTZA DUALA**



331
L-I Partekatzea
(Lan-Ikaste)

262
Enpresa kopurua

410
GBL/MBL
(Gradu Bukaerako Lana/
Master Bukaerako Lana)

9,04
Batez besteko
asebetzea

IKASLE PARTE
HARTZAILE
KOPURUA

ENPRESA PARTE
HARTZAILEAK

MUGIKORTASUN PROGRAMA



71 | **166**

ETORTZEN DIREN | JOATEN DIREN
IKASLE KOPURUA | IKASLE KOPURUA

* GMHZ: Goi Mailako Heziketa Zikloak

** Prestakuntza DUALean dauden ikasle guztiek ordainsaria jasotzen dute.

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA




PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA



*JCR: Journal Citation Report


NORA GOAZEN



MGEPEk bere misioarekin duen konpromisoa mantentzen du, zehazki, gure prestakuntza, ikerketa eta transferentzia jardueren bidez, gizartea eraldatzea. Horretarako pertsonarik egokienak, motibatuenak, gaituenak eta inplikatuak ditugu. Beraien ahaleginarekin eta talentuarekin, MGEPEk modu jasangarrian eboluzionatzen jarraitu behar du. 2016/2017tik 2019/2020ra doan aldi estrategiko honetan, gure hezkuntza eredua gaurkotuko dugu gazte teknologoak modu integra-

tuan prestatzeko eta lankidetzan aritzeko gai izan daitezen. Horretarako, enpresen interesekin are gehiago lerrokatzeko jarduerak eta ekintzak abian jarriko ditugu, aliantza egonkorren bidez.

ZEIN DA GURE ESTRATEGIA?



MGEPEn estrategia bost apustu handitan laburbildu daiteke, erronkak betetzeko plan estrategikoan definitu ditugun palanka hauekin, zehazki:

1. MGEPE-eko langileak **gaitzea**, epe luzeko ikuspegiarekin.
2. MGEPE gure enpresen interesekin hobeto lerrokatu dadin, **aliantza estrategikoen eredua hedatzea**, eta ezagutzaren transferentzia hobetzea.

3. Gure enpresa aliatuen interes eremuetan **espezializatzea**, lehenatasunez fabrikazioaren, energiaren eta osasunaren sektoreetan.

4. MGEPEko jardueren arteko konexioak optimizatuko dituen **eskaintza integrala** garatzea.

5. **Beste merkatu batzuetara irekitzea** eta ekintza-eremua hedatzea.

www.mondragon.edu/eu/goi-eskola-politeknikoa

Loramendi, 4
20500 MONDRAGÓN
Tel. 943 79 47 00
Fax 943 79 15 36
info.mgep@mondragon.edu



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Goi Eskola Politeknikoa
Escuela Politécnica Superior**

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA